6047

EBAZPENA, 2008ko urriaren 7koa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, NBE-2007BA/0016 proiektuan aritu den Virginia García Basurto lankide boluntarioak diru-laguntzaren zati bati uko egiteko aurkeztutako eskabidea onartzeko dena. Fundación Unicef-Comité Español erakundeak aurkeztu zuen proiektua, Garapenean Lankide Izateko Fondoaren kargura, Nazio Batuen nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei zuzendutako 2007ko diru-laguntzetarako deialdiaren barruan. Diru-laguntzok Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko dira.

Virginia García Basurto lankide boluntarioak El Salvadorren burutu behar zuen jardueraren gastuak ordaintzeko xedez, Fundación Unicef-Comité Español erakundeak 15.450 euroko diru-laguntza jaso zuen, hain zuzen ere, Nazio Batuen nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei 2007. urtean laguntzak esleitzen dituen Lankidetza zuzendariaren 2007ko irailaren 26ko Ebazpenak ezarritakoari jarraituz. Diru-Laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko dira.

Lankidetza zuzendariaren 2008ko irailaren 22ko Ebazpenaren bidez urtebeteko luzapena eman zen, 15.000 euroko zenbatekoz.

Bekadunak, hala ere, 2008ko irailaren 30ean, diru-laguntzaren zati bati uko egiteko eskabidea igorri zion Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari.

Lankide boluntarioak uko egin dionez emandako luzapenari, ez zaizkio aurreikusitako ordainketak egingo, hain zuzen ere 9.000 euro eta 6.000 eurokoak, hurrenez hurren.

Azaldutako guztiagatik, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak entitate onuradunak eskatutako aldaketak onartzearen aldeko txostena egin du. Beraz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Fundación Unicef-Comité Español erakundeak Virginia García Basurto lankide boluntarioaren gastuak ordaintzeko aurkeztutako ukoa onartzea, zeina Nazio Batuen nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei laguntzak esleitzeko deialdiaren barruan aurkeztu baita, hain zuzen ere EAEko lankide boluntarioei GLSF 2007ren kargura bekak esleitzeko. Horrek dakarrena da uko egiten zaiola luzapeneko 15.000 euroko zenbatekoari.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gizarte Gaietako sailburuordeari zuzenduta. Ebazpenaren jakinarazpena egiten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 7a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.

6047

RESOLUCIÓN de 7 de octubre de 2008, del Director de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la solicitud de renuncia parcial a la cooperante Virginia García Basurto que debía desarrollar su actividad en el proyecto con referencia NBE-2007BA/0016 presentado por la entidad Fundación Unicef-Comité Español dentro de la convocatoria de ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a los mismos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma Vasca con cargo al Focad 2007.

De conformidad con la Resolución de 26 de septiembre de 2007 del Director de Cooperación por la que se conceden ayudas a Organismo Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2007 se concedió a Fundación Unicef-Comité Español una ayuda de 15.450 euros para sufragar los gastos de la cooperante Virginia García Basurto que debía desarrollar su actividad en El Salvador.

Mediante Resolución de 22 de septiembre de 2008 del Director de Cooperación se autorizó una prórroga de un año, con un importe de 15.000 euros.

Con fecha 30 de septiembre de 2008, fue remitida a esta Dirección de Cooperación al Desarrollo la solicitud de renuncia parcial a la beca.

Dado que la cooperante ha renunciado a la prórroga concedida, no se realizará ninguno de los dos pagos previstos, de 9.000 euros y 6.000 euros respectivamente.

Por todo lo expuesto, la Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Aceptar la renuncia solicitada por la entidad Fundación Unicef-Comité Español para sufragar los gastos de la cooperante Virginia García Basurto, presentada dentro de la convocatoria de ayudas a Organismo Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a ellos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con cargo al Focad 2007, lo cual supone la renuncia de 15.000 Euros correspondientes a la prórroga.

Segundo.– Contra la presente resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2008.

El Director de Cooperación al Desarrollo,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.